

Zabor arteko loreak

Edukia mespretxatzen duen edukiontzien kulturari bizi gara. Gehiago inporta du fisikoak intelektuak baino. Gehiago ezkontzak maitasunak baino. Gehiengoak nortasunak baino. Arropak gorputzak baino. Eta funeralak hildakoak baino. Eduardo Galeanoren hitzak dira.

Kontua da ez dakigula zaborra bereizten eta dena nahastean sortzen da kiratsa. Ez dakigu zer bota behar den eta zer eutsi. Zer bota nahi dugun eta zer hartu. Ez pentsa Antxo zikinkeria guzti horretaz libratu denik, ez. Bazterrak ikustea besterik ez dago. Nori nahi ditu, baina sudurzuloak usteldu? Guk ez.

Guk zabor guzti horretatik hazten diren loreak maite ditugu. Indar berezia dute, usain ederra, itxura elegantea. Kostatzen da halakoak aurkitzen, gutxien espero duzunean iristen dira. Baina behin aurkituta, begiak ohitu eta milaka eta milaka topatuko dituzu. Guk aurten, berriro ere, TOPAgunera ekartzeko asmoa dugu, izan ere, zabor guzti horretatik hazten diren loreak gara. Antxo gero eta koloretsuago dago.

Zer egingo genuen, bada, guzti hori erre? Ez, ez gara erreko. Gure lurra landuko dugu. Ez dugu kea arnastu nahi, ez dugu grisa ikusi nahi. Ez dugu naturala dena txikitzen duten proiekturik nahi. Ez dugu makroproiektuetan sinesten. Gehiegikeri, inposizio, debeku eta boterearen arteko jaiotako haziak gara. Euskara da gure territorio libre bakarra eta hortxe bota ditugu haziak. Jaiak, botere harremanik gabekoak eta denontzako askeak. Gure erara eta guretzat eginak. Hori bai, hori da zapaldu nahi dugun eta eraikitzen ari garen lurra.

Ustelduko ez diren loreak. Horiek dira indartsuenak, zabor arteko irtetan direnak. Usain berezi bat dago kiratsa gailentzen duena. Ez gabiltza soilik zaborraz hizketan.

Moliñomari da loreak hainbeste gustatzea ekarri diguna. Eta aurtengo jaietan bereziki loratuko dena. A, portzierto, ba al dakizue nor den Moliñomari?